



III KANPAINA KULTURALA

III MARRAZKETA LEHIAKETA

2018/2019 ikasturtea

Donostiako SUMMA-Aldapeta Ikastetxeko **IGEk eta irakasleek** III Kanpaina Kulturala deitu dute, sormena eta ezagutza sustatzeko eta hezkuntza jarduerak bultzatzeko asmoz.

XVII Alberto Echeverría Lehiaketa ostean, III Marrazketa Lehiaketaren oinarriak aurkezten dira:

Modalitateak

1. Lehiaketak hiru modalitate ditu: **Ipuinen Ilustrazioaren Lehiaketa, Summarioren Portada eta Kontraportadaren Diseinu Lehiaketa eta Kultur-ondarearen Lehiaketa.**

Parte-hartzaileak

2. **Ipuinen Ilustrazioaren Lehiaketan** LHko 5. eta 6.mailako eta DBHko 1. eta 2.DBHko ikasle orok har dezake parte.
3. **Kultur-ondarearen Lehiaketan** LHko 5. eta 6.mailako eta DBHko 1. eta 2.DBHko ikasle orok har dezake parte.
4. Summarioren (eskolako urtekariaren) 2017/2018ko Portada eta Kontraportadaren Diseinu Lehiaketan DBHko eta Batxilergoko ikasle orok har dezake parte.

Ipuinen Ilustrazio lehiaketa

1. Partaideek banaka jardungo dute lehiaketan.
2. Ikasleak nahi duen ipuina ilustra dezake, aukeratutako ipuina lanekin batera erantsiz.

Summarioren Portada eta Kontraportadaren Diseinuaren Lehiaketa

7. Partaideek 2018/2019ko Summarioren Portada eta Kontraportada diseinatuko dute, Photoshop programaz baliatuz. PSD edo JPG artxiboan izan beharko du eta mdemiguel@summa-aldapeta.eus helbidera bidaliko dute.

8. Banaka edo binaka parte har dezakete.

Kultur-ondarearen lehiaketa

9. Partaideak banaka arituko dira lehiaketan. Era berean, parte hartzaileek, zuzenean, Espainia mailan egiten den "XXVIII CONCURSO PATRIMONIO NACIONAL DE PINTURA INFANTIL Y JUVENIL PARA CENTROS ESCOLARES" izeneko lehiaketan izena ematen dute. **Bertan parte hartu dutelaren ziurtagiria jasoko dute.**

10. Modalitate horretan, Aiete eta Miramar jauregien artean bat aukeratu eta marraztuko dute. Aurkeztutako lanak ezin izango dira itzuli.



Oinarri komunak

11. Teknika.- Lanek teknika librea izango dute.

12. Formatua.- Lanak DIN A3 eta Photoshop/JPG formatuan aurkeztuko dira.

13. Identifikazioa.- Lanak izenburuari esker soilik identifikatuko dira, ezin baitute egilea nor den adieraz dezakeen xehetasunik eduki. Aparteko kartazal itxi baten barruan egilearen izen-abizenak adieraziko dira. Kartazalaren kanpoaldean lanaren izenburua eta lehiatuko den modalitatea soilik ipiniko dira. **Baldintza hauek bete ezean, ez da lanik onartuko.**

14. Nola eman.- Lanak **Plastika irakasleari edo tutoreari** eman behar zaizkio.

15. Onartzeko epea.- Lanak onartzeko epea bi data hauen artean izango da: **2019ko otsailaren 11–2019ko martxoaren 15a.**

16. Lehen hautaketa.- Lehen fasea igaro ahal izateko, lanek arte kalitate nabaria izan behar dute.

17. Epaimahaia.- Irakaslegoak aukeratuko ditu epaimahaikideak, eta haien epaia apelaezina izango da.

18. Sariak.- Modalitate bakoitzean irabazten duen pertsonak **Diploma** eta **100 euroko** txartela eskuratuko ditu saritzat.

19. Parte-hartzaileen balorazio akademikoa.- Lehiaketan parte hartzea, aurkeztutako lanaren gaiarekin lotutako irakasgaiaren balorazio akademikoa egiterako orduan, elementu gehigarri bat izan daiteke, betiere aipatutako lanak oinarri hauen 16. puntuan adierazitako baldintza betetzen badu.

20. Epaiaren argitaratzea.- Bi modalitateetako lan irabazleak **2019ko apirilean** emango dira aditzera. Ikastetxeko webgunean argitaratuko dira irabazleen lanak.

21. Oinarriak onartzea.- Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar. Oinarri hauetan aurreikusi ez diren gertakariak dagokion epaimahaiak ebatziko ditu.

Aurkezten diren lanek inon argitaratu gabeak eta beste ezein lehiaketan saritu gabeak izan behar dute.

Anima zaitetz parte hartzera!

IGE eta Summa Aldapetako irakaslegoa